

MUk eta MCCk bilera egin dute aztertzeko zelan areagotu elkarlana enpresa berriak sortze aldera

2007/06/14

Ekainaren 13an bilera bat egin zen Arrasaten, Mondragon Unibertsitatearen errektoretzan, eta han ziren, alde batetik, MCCko **Sustapen Batzordeko** kideak **Monika Nuñez** buru zutela eta, bestetik, **MUko** ordezkariak, hiru fakultateetan **ekintzailetasunaz** arduratzen direnak, tartean **HUHEZikoak**, Joxe Mari Aizega buru.

Bilerak bi zati izan zituen. Lehenean Joxe Mari Aizegak aurkeztu zuen Mondragon Unibertsitatea zer egiten ari den gaur egun ekintzailetasuna bultzatzeko, eta aipatu zituen bereziki Bidasoako kanpusean lantzen ari den **lizentzia**, **Iker Etekin** proiektua, **Ekiten** egitasmoa eta MBA Enpresa Zuzendaritzako Master Ofiziala.

Bigarren zatian, galdera-erantzunen txanda ireki zen. Elkarrizketa emankorra sortu zen partaideen artean; izan ere, hainbat zalantza argitzeko balio izan zuen eta elkarlanerako bideak proposatzeko.

